

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2011ko irailaren 6a. VIII. urtea. 2.267. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Aparteko Osoko Bilkura egingo dute Leitzan auzipetuei babes azaltzeko

Espainiako Auzitegi Nazionalak jaietan «terrorismoa goratzea» egotzi die alkateari eta bi herritarri; Leitzan auzipetuekiko babes taldea sortu dute

Udaletxean 20:00etan egingo dute bilkura, gaur; bihar elkarretaratzea egingo dute plazan eta etzirako, bi orduko lanuztea deitu dute, 12:00etatik 14:00etara ◊3



JON URBE/ARGAZPI PRESS

## Getaria-Tolosakoak baikor, bigarren jardunaldirako

Kontxako Banderaren lehen jardunaldian Getaria-Tolosako traineruak hirugarren egin zuen, Zumaia eta Galziaren ondoren. Anjel Larrañaga entrenatzaileak estropada «bikaina» egin zutela esan du ◊6

## Abuztua amaitu arren herriko jaiek ez dute oporraldirik hartuko

Bihar edo etzi hasi eta igandera arte luzatuko dira Alkizan, Bedaion, Elduainen, Lizartzan eta Zizurkilen herritar kutsuko jaiak ◊4-5



## Algorta, Lizarra eta Ibarra elkartuko ditu irailaren 17ko Euskal Herria Egunak

Herritarrei egun guztiko jaiari parte hartzeko eskatu diete; bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte Atarin eta Danon Txokoa ◊7



Euskal Herria Eguna Ibarra ospatuko da irailaren 17an. A. MAZ

MAIRI AITZOL UDAL EUSKALTEGIA

Rondilla 34-B, 3.a  
20400 TOLOSA  
tel. 943651006 - 943652343  
www.udaleuskaltegiak.net  
aitzolue@tolosakoudala.net



Almitzako segalariak, Europako Segga Txapelketaren aurkezpenen. HITZA

## Eskualdeko kirolarien eskutik iritsi dira abuztuko albisterik esanguratsuenak

Tolosan, M-15 mugimenduko martxa eta Olarrain auzoan gertatutako isptripua ere hizpide izan dira

### Itzea Urkizu

Abuztuko hilabeteak hamaika eta bat berri utzi ditu eskualdean, eta besteak beste, kirola izan da protagonista.

Tolosaldeko triatloiariek oso emaitza onak lortu dituzte azken lauzpabost asteotan burututako probetan; Egoitz Zalakainek eta Aimar Agirresarobek egindako lana azpimarratzekoa da. Bide beretik, Iker Karrera amezketarrak Mont Blanc-eko Ultra Trail proban bigarren postua lortu du.

Arraunean ere, Tolosa-Getariako neskak oso lan ona egin dute, eta beren erregulartasunak Euskotren liga nahiz Gipuzkoako Emakumezkoen Traineru Ligaren garaipenak ekarri dizkiete.

Herri kirolek ere izan dute tarterik abuztuan, eta Josetxo Urrutiak laugarren postua lortu du Euskadiko harri jasotze txapelketan. Bestalde, Almitza elkarteko segalari euskaldunak Eslovenian izan dira, Europako Txapelketan; Joxe Gabirondo gazteluarrak bosgarren postua lortu du. Ardi txakur lehiaketan, beste urte bezela Txiki txakur aresoarrak irabazi du Uharte Arakilen.

### HARRI JASOTZEA

■ **Euskadiko harri jasotze txapelketa.** Josetxo Urrutiak laugarren postua lortu zuen, pasa den abuztuaren 10ean, Aian ospatu zuten Euskadiko Harri Jasotze Txapelketan. 125 kiloko koadroarekin 22 jasoaldi egin zituen Urrutiak; pisu bereko harri zilindrikoa, berriz, 25 aldiz jaso zuen; 112,5 kiloko kubo 14 aldiz jaso zuen, eta 100 kiloko bola 19 aldiz. Horrela beraz, guztira 9.350 kilo altxatu zituen Josetxo Urrutiak, 80 jasoalditan.

### TRIATLOIA

■ **Oso emaitza onak eskualdeko triatloiariek.** Abuztuaren 23an Copenhagen ospatu zuten Challenge Iron Man distantziako proban, Egoitz Zalakainek seigarren postua lortu zuen, 8 ordu eta 26 minutuko denborarekin. Era berean, Aimar Agirresarobek ere oso lan ona egin zuen Regensburg-eko (Alemania) Iron Manean, eta 13. postuariak, datorren urriaren 8an Hawaiiin ospatuko duten Munduko Txapelketarako txartela eskuratu zuen. Bestalde, Aitor Regillaga, Alberto Vaquero, Iñaki Insausti, Alar Sevillano eta Ion Artutxa triatletak, Ultzamako mendi maratoian lan ona burutu zuten, Mahala-TTT talde hobereana bezala sailkatuz.

### M-15 TOLOSAN

■ **Madrilidik Bruselara bidean, M-15 mugimenduko Tolosan egin zuen geldialdia.** Pasa den uztailaren 26an Madrilidik irten zen maiatzaren 15eko mugimenduaren martxa, Bruselara bidean. Abuztuaren 14an, Trianguloa plazan bildu ziren martxako partaideak, eta postu bat jarri zuten janaria eta sukaldeko tresnak biltzeko. Asanblada bat ere egin zuten, tolosarren eta inguruko herritarren kezkak jaso, eta Europako parlamentura eramateko. Martxa urriko lehen egunetan Bruselara iristea aurreikusitako dute.

### ARRAUNA

■ **Tolosa-Getariako neskak garraile Euskotren ligan eta Gipuzkoako ligan.** Tolosa-Getariako nesken Urkabe trainerua izan da aurtengo udan erregularraren. Beren lanak bi garaipen garrantzitsu eman dizkie: Euskotren liga eta Gipuzkoako Emakumezkoen Traineru Liga. Lehena 12 punturekin irabazi zuten, abuztuaren 15ean Zarauzko urretan; San Juan, Bizkaia eta Hondarribiako traineruak izan zituzten arerio beren taldeko estropadetan, eta Galizia, Zumaiak eta Orío, berriz, beste talde batean aritu dira. Gipuzkoako ligaren garaipena, pasa den abuztuaren 27an lortu zuten,

Orioko estropada amaitu eta gero, 29 punturekin.

### SEGA

■ **Eskualdeko segalariak Europako Segga Txapelketan.** Pasa den abuztuaren 20 eta 21ean, Europako Segga Txapelketa ospatu zuten Cerklje na Gorenjskem-en (Eslovenia). Segalari euskaldunek parte hartu zuten Almitza elkartearen izenean, eta eskualdeko hainbat gizon-emakume aritu ziren segan: Joxe Gabirondo 5. postuan sailkatu zen, eta euskaldunik hobereana izan zen abuztuaren 21eko proban; bide beretik, Arkaitz Artea, Unai Iraola, Oier Urkola, Joseba Agirrezabala, Igor Urkola eta Andoni Egia aritu ziren. Emakumezkoen proban, Naroa Geresta izan zen eskualdeko segalariaren artetik hoberen sailkatu zena, 18. postuan; bere atzetik, Garazi Ezeiza eta Ainhoa Galarraga sailkatu ziren.

### ISTRIPUA BENTA HAUNDIN

■ **77 urteko emakume bat hil zen.** Pasa den abuztuaren 26an, kamoi batek 77 urteko emakume bat harrapatu zuen zituzten arerio beren taldeko estropadetan, eta Galizia, Zumaiak eta Orío, berriz, beste talde batean aritu dira. Gipuzkoako ligaren garaipena, pasa den abuztuaren 27an lortu zuten,

### ULTRA TRAIL-A

■ **Iker karrera bigarren postuan Mont Blanc-eko proban.** Abuztuaren 27an, Mont Blanc-eko Ultra Trail proba ospatu zuten. Iker Karrera kirolariak 20:45:30-eko denborarekin, bigarren postuan sailkatzea lortu zuen Salomon Santiveri taldean kide duen Kilian Jornet-en atzetik.


### ARDI TXAKURRAK

■ **Txiki txakurra seigarren txapeldun.** Abuztuaren 28an ospatu zuten, Uharte Arakilen, ardi txakurren 44. lehiaketa. Aresoko Antonio Alustizaren bi txakurrek, lehenengo eta bigarren postuak lortu zituzten. Txiki-k seigarren lortu zuen puntuaziorik altuena, 427 punturekin; bere ondorengoa den Bai txakurra, berriz, hiru puntu gutxiago lortu zituen ekitaldian. Horrela beraz, aresoarrak lehen eta bigarren sariak eskuratu zituen. Era berean, Josetxo Villabona leitzarra eta bere txakurra Argi, zortzigarren postuan sailkatu ziren, 43 punturekin.

### MENDIA

■ **Eduarne Pasaban Príncipe de Asturias sarietarako izendatua.** Eduarne Pasaban mendizalea Príncipe de Asturias sarietarako izendatu zuten kirolarien sailean. Berarekin batera, Raul Gonzalez futbolaria, Marta Dominguez eta Haile Gebreselassie korrikalariak, Kelly Slater surf-laria, Carlos Sastre txirrindularia edo igeriketa sinkronizatuko Espainiako taldea izendatu zituzten, besteak beste, sarirako.





Itzaskun auzoko jaietan, ostrialean, Tolosako musika taldeen kontzertuak izan ziren. Switch taldeak kus dantak kontzertuko ume batean. Larunbatean, batelén desafioa izan zen. HITZA/2017/08/2017

# Alkiza, Bedaio, Elduain, Lizartza eta Zizurkil, jaiei hasiera emateko prest

Alkiza, Bedaio, Lizartza eta Elduainen Andra Mari Jasokundearen jaiak, eta Zizurkilaren Arantzazuko Amarenak ospatuko dituzte

Adin guztietako herritarrek nahiz kanpotarrek gozatzeko moduko jaiak dira

### Enertiz Maiz

izango da festarako auzera. Hila betea bukatzerako, lurarrek hartuko diete testigua, eta festetan jarraitzeko aukera izango dute jarranduzkoak.

Era guztietako ekitaldiak izango dira, gustu eta adin guztietarako moduak. Haurrek, gazteek eta helduek aukeratzeko modukoak prestatu dituzte. Herriko festa guztietan bezala, taldeen be-

riak gozatzeko moduko tartek izango dituzte. Jolasak, toka, maizak, pailazoak, txokolatadak, autimalk... edota bizikleta lasterketa izango dituzte.

Musikak ere garunari berezia hartzen du jaietan. Trikiti dotuak izango dira nagusi jai haue- tan baina horrez gain kontzertuak ere izango dira. Kontzertuak behar bezala gozatzeko, ohi bain- darrek garraro publikoak jarri- dute. Tolosan edo Leiztan hartu- ahal izango da autobus ostriale- tik larunbetean.

Autobusa 23:30ean aterako da Leiztako guztietatik, eta itzultze- ko orduan 04:00etan izango da. Be- rasteğin, farmaziaran parsaan 23:45ak inguruan geldituko da. Tolosan Santa Kilaratik 23:00etan

aterako da, eta itzultze ko ordua 04:30ean izango da.

**Kirolak ez du hutsik egiten**  
 Herri guztietako festetan era ba- tera edo bestera, kirolak leku handia hartzen du. Kasu honetan, Bedaion Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkora Finala jokatu da igandean. Azurmendi, Olasagasti, Otaegi, Mujika eta Mugaiza lehiatu dira.

Bestalike, herri-jasozaldiak ere izango dira, aldar-jingoen, Urri- Telleria eta Uhai Berri bikoite- ren aurka arko da 100 kiloko ko- parekin, bi minutuko hirri saio- an.

Gainerakoetan ere, herri kirol- an artelan herritarren artekoak, emakumeen artekoak edota pro- fesionalak eginak izango dira. Pi- lota partidek eta bizikleta laster- ketek ere ez dute hutsik egingo jai- hauean.

**Itzaskun auzoa, jendez beteta**  
 Tolosan, Itzaskun auzoko jaiak o- patu zituzten lehen aste bu- tarran. Euriak ondo busti bazituen ere, festazaleek ez zuten hutsik egin. Ostrialean danborrada eta herriko musika taldeen kontzertu- ak izan ziren, eta jende asko gerturatu zen. Larunbetean, ha- rren gosaria eta jolasak, batden desafioa, auzo bazkaria eta sagar- do dastaketa izan zituzten. Gosar- ko kontzertuak estrateko berri- z, tuki geratu zen auzoko plaza. Fiachras, Gose eta Zea Mays tal- deen kontzertuak izan ziren.

### Festetako egitarauk

#### ALKIZA

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Haurren Toka Txapel- keta.
- 14:00. Jubilatuen bazkaria Ostaru-jatetxean.
- 16:30. Haur jolasak.
- 19:00. Eri magaren saioa.
- 21:00. Herri Afaria.
- Ondoren, Erromeria Eluston- do anai-anebekin.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Haur jolasak.
- 13:00. Herri afaria nagusia.
- 14:00. Erromeria Ansozregi eta Larrañaga eta ber eta Ala- ber trikitilariekin.
- 11:00. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa Abete-ri-jatetxean.
- 13:00. Bedaioako XXII. Txirin- dulari ingoera (federatu gabek).  
 15:00. Herriko jaiak: Gi- puokoako Lehen Mailako Aizko- ra finala; Azurmendi, Olasagasti, Otaegi, Mujika eta Mugaiza. Herri-jasozaldiak: Amariñ- goien, Urri/ Telleria eta Unai Bertzen aurka. Tartean, Be- daioko inguruko dantzaritako dute, eta trikitilariek izango dira.
- 21:00. Afaria: mondejoak eta ardi gisatua, Artubi Elkartearen.
- 00:00. Suziriariekin amaiera.

#### ELDUAIN

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Bizkietako lasterketa he- rrikoen artean, taldeka.
- 13:00. Txakolin dastaketa.
- 16:00. Pitxot tiraketa, Eñiope taldeak antolatuta, bazkide eta herriartarizat.
- 17:00. Asta lasterketa.
- 18:30. Beteraonon arteko es- kuz binakako pilota finalak.
- Ondoren, Trikitia Antzi Tri- partegi eta Jon Ostolzarrekin.

#### BEDAIO

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Hamakietakoa Aba- te-jatetxean.
- 14:00. Herriko jaiatuen omeze bazkaria, Abatevea ja- tetxean.
- Ondoren, Trikitilarien saioa.
- 18:00. Pilota partidak.

- 21:00. Zahagiardoa.
- Ondoren, Erromeria ber eta Ala- ber trikitilariekin.
- 11:30. Emakumeen arteko herri kirolak.
- 00:00. Egurra ta Kitta, Haba- as Corpus eta disko festa pla- zan.
- 21:00. Zahagiardoa.
- 23:00. Erromeria Elustondo anai-anebekin.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 16:00. Ume jokoa: jolasak eta txokolatada.
- 21:00. Herri afari nagusia.
- 23:00. Erromeria Ansozregi eta Larrañaga eta ber eta Ala- ber trikitilariekin.
- 11:00. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa Abete-ri-jatetxean.
- 13:00. Bedaioako XXII. Txirin- dulari ingoera (federatu gabek).  
 15:00. Herriko jaiak: Gi- puokoako Lehen Mailako Aizko- ra finala; Azurmendi, Olasagasti, Otaegi, Mujika eta Mugaiza. Herri-jasozaldiak: Amariñ- goien, Urri/ Telleria eta Unai Bertzen aurka. Tartean, Be- daioko inguruko dantzaritako dute, eta trikitilariek izango dira.
- 21:00. Afaria: mondejoak eta ardi gisatua, Artubi Elkartearen.
- 00:00. Suziriariekin amaiera.

#### LIZARTZA

- 17:00. Toka herriko plazan.
- 18:00. Patata tortilla dastake- ta.
- 19:30. Emakumeen arteko herri kirolak.
- 00:00. Egurra ta Kitta, Haba- as Corpus eta disko festa pla- zan.
- 00:00. Dj Bull, Urdelar elkar- tean.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

- 11:00. Herriko gazteen arteko pilota partidak.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### LIZARTZA

- 17:00. Toka herriko plazan.
- 18:00. Patata tortilla dastake- ta.
- 19:30. Emakumeen arteko herri kirolak.
- 00:00. Egurra ta Kitta, Haba- as Corpus eta disko festa pla- zan.
- 00:00. Dj Bull, Urdelar elkar- tean.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### ZIZURKIL

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

- 11:00. Herriko gazteen arteko pilota partidak.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### LIZARTZA

- 17:00. Toka herriko plazan.
- 18:00. Patata tortilla dastake- ta.
- 19:30. Emakumeen arteko herri kirolak.
- 00:00. Egurra ta Kitta, Haba- as Corpus eta disko festa pla- zan.
- 00:00. Dj Bull, Urdelar elkar- tean.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### ZIZURKIL

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

- 11:00. Herriko gazteen arteko pilota partidak.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### LIZARTZA

- 17:00. Toka herriko plazan.
- 18:00. Patata tortilla dastake- ta.
- 19:30. Emakumeen arteko herri kirolak.
- 00:00. Egurra ta Kitta, Haba- as Corpus eta disko festa pla- zan.
- 00:00. Dj Bull, Urdelar elkar- tean.
- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:00. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

#### ZIZURKIL

- 11:00. Meza Nagusia.
- 12:30. Haurrentzako puzga- rriak.
- 14:00. Herri bazkaria.
- 16:00. Haurrentzako puzga- rriak.
- 19:00. Sagardo dastaketa.
- 20:00. Gabezin musika tal- dea.
- 23:00. Su artifizialak.
- 09:45. Meza Nagusia.
- Ondoren, Hamakietakoa, gar- dina eta piperrak txakolina eta ardoarekin herriko plazan.
- 12:30. Pilota partidak.
- 18:00. Kalle Antzezia, traua zaharra taldearen eskutik, Gira eta Gira.
- Bukatzeak, Gorri eta bere animalak herriko plazan.

## XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

**1. Sarria**

Landetxe polit batean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia

**2. Sarria**

Tolosako Karlis estudioan argazki erreportaje bat

**3. Sarria**

Astelena jaietxean bi pertsonentzako otordua

Pertsonako argazki bakarra bidali dazte [thargazaki@hitza.info](mailto:thargazaki@hitza.info) helbidera  
 Bidali zure argazkiak irailaren Setik 23a bitartek!

Hitzak eta irudiak  
 ingeles, eusker, frantses, alemaner, italiar...  
 Hizua hastarok

**Peugeot Sarean,**  
 prezioa eta kalitatea parean

Kalitate: Zerbitzu profesionala / Datoz etxera 28 puntuk / Pneumatikoak berriez  
 Prezioa: Ekitatu aurreratu eta lezatsunari gehiago ez duela bako kasko dugu.

Eskaintza orokorra  
 zehazteko bidali: [info@peugeot.com](mailto:info@peugeot.com)

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 144 - 20400 TOLOSA - Tel.: 943 650 337 / Fax: 943 652 938 - [ukoa@bbsa-peugeot.com](mailto:ukoa@bbsa-peugeot.com)



## Kirolak &gt;

## ↓ Emaitzak

## PILOTA

XXII. JOXEAN TOLOSA  
TXAPELKETA

## Kadeteak

Ibarrondo	3
Iribarria	18
<b>Olano</b>	18
<b>Altuna</b>	9

## Gazteak

Aznarez	7
<b>Jaka</b>	18
<b>Artola</b>	8
Rezusta	18

## Nagusiak

<b>Belloso</b>	9
Ezkurdia	18
Arratibel	8
Arzelus	18

## ARRAUNA

## KONTXAKO BANDERA

## Lehenengo jardunaldia

1. Zumaia	11:07.10
2. Galizia	11:11.42
3. <b>Getaria-Tolosa</b>	11:12.12
4. Bizkaia	11:53.04

## HERRI KIROLAK

## TXINGA

## Euskal Herriko Txapelketa

1. J. Agirregabiria	24 plaza
2. <b>M. Sukuntza</b>	21 p. eta 10,33m
3. K. Perez de Heredia	
	12 p. eta 2,44m

## LASTO ALTXATZEA

## Euskal Herriko Txapelketa

1. J. Bustintza	24 jasoaldi
2. Iñaki Bereau	22 jasoaldi
3. Carlos Sein	21 jasoaldi
4. Joxemari Atutxa	20 jasoaldi
11. <b>Andoni Agirreurreta</b>	16 jaso.
13. <b>Pello Argai</b>	12 jasoaldi

## TRONTZA

## Euskal Herriko Txapelketa

1. Iñaki Barberena-Josetxo Barberena	12:37
2. Jose L. Cano-Raul Maiza	14:11
3. I. Lasaga-X. Galarregi	15:00
6. <b>U. Iraola-J. Garmendia</b>	17:33

## AIZKORA

Euskal Herriko 2. Mailako  
Txapelketa (kanporaketa)

1. <b>Unai Otaño</b>	12:36
2. Ugaitz Mugerza	13:43
3. Ander Erasun	14:12
4. <b>Arkaitz Olano</b>	14:21
5. <b>Jon Rekondo</b>	14:40
6. Xabier Zaldua	14:49

## Iragarki laburrak

## SALGAI

■ **Etxebizitza.** Etxe adosatua salgai Tolosan. Eguzkitsua. Lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autoentzako garajea, txokoa, lorategia eta trasteleku ditu. Interesatuak 678 267 657 telefono zenbakira deitu dezakete.

# Larrañaga: «Estropada bikaina eginez, bandera salbatzea lortu genuen»



Getaria-Tolosako trainerua, ostiraleko sailkapen proban. HITZA

Getaria-Tolosa traineruak hirugarren egin zuen Kontxako Banderaren lehen jardunaldian

**Imanol Garcia** Tolosa

Kontxako Banderaren lehen jardunaldia oso lehiatua izan zen emakumezkoen mailan. Getaria-Tolosa traineruak hirugarren amaitu zuen, Zumaiatik bost se-

gundora eta Galiziatik segundo batera, baina Anjel Larrañaga entrenatzaile tolosarrak balantze baikorra egiten du: «Bi talderen atzetik goaz, baina arraunlariek estropada bikaina egin zuten, eta emaitzarik onena lortu zuten: bandera salbatzea».

Zumaiarrek ez zutela behar bezala laugarren kalea aprobetxatu dio Larrañagak: «Ez zuten Banderara erabakita utzi. Bost segundoko abantaila eskura dugu, bai guk eta baita galiziarrek ere». Emakumeen estropadan, itsaso mugitua

bazegoen ere, kaleen zozketak eman ziren abantaila zumaiarrei. Larrañagak dioenez, «Santa Klarako uharteak eman ziren babesa. Bai gureek eta bai galiziarrek hasiera indartsua egin zuten, baina haizearen eragina lehenago nabaritu zuten zumaiarrek baino. Gero, olatuak ez ziren uhartean puskatzen, Aquariumaren parean baizik, eta horrek gureei arazoak eragin zizkieten».

Hurrengo igandean jokatu dute bigarren jardunaldia. «Guk, ostiraleko sailkapen proban beza-

la, gure maila ematen badugu, zumaiarrei bost segundo baino gehiago atera ahal dizkiogu. Kontua da igandean zorte txarra ez izatea, hau da, beraiek kale onena eta guk txarra ez izatea. Gure arraunlariek igande honetako jarrerara erakusteko gai badira, gure teiltuaren gainean izango da pilota». Kontxako Bandera ez dela irailan irabazten dio Larrañagak: «Bandera irailan jaso egiten da. Neguan egiten den lana eta sakrifizioak ematen du, eta hori guztia egina dugu. Orain, tristea izango zen, zorte txarrrangatik bandera ez lortzea».

## Mutiletan, erabakita

Larrañaga bigarren entrenatzailea da Astilleron eta «ezintasuna» sentitu zutela esan du. «Oso ondo prestatu genuen estropada hau, eta hori sailkapenean ikusi zen. Baina itsasoak eta haizeak estropada hankaz gora jarri zuen». Urdaibak irabazi zuen lehen jardunaldia, eta bigarrenari, Kaikuri, 33 segundo atera zizkion. Emakumezkoen estropadan egongo den emoziorik ez da izango, beraz, gizonetzkoetan.



Unai Iraola eta Jokin Garmendia trontzalariek, irudiaren erdian. MIKEL GOÑI

## Txapelarik gabe itzuli dira eskualdeko herri kirolariak asteburuko hiru lehietatik

Euskal Herriko Txapelketak jokoan izan dira trontzan, lasto altxatzean eta txingian, Donostian

**Imanol Garcia**

Herri kiroltako Euskal Herriko hiru txapelketa zeuden jokoan larunbatean Donostian. Hiruetan parte hartzen zuten eskualdeko ordezkariak, baina ez zuten txapelarik eskuratu. Gertuena Mielanjel Sukuntza leitzarra ibili zen, txinga eramate proban. Bigarren egin zuen Juanjoxe Agirregabiriaren atzetik. 50 kiloko txinga parearekin jardun zuten sei finalistek, 28 metroko plazan.

Lasto altxatze txapelketan Aiztondoko bi kirolari aritu ziren: Andoni Agirreurreta asteasuarra eta Pello Argai zizurkildarra. Guztira hamalau partaide izan zi-

ren lehian eta Agirreurretak hamahirugarren eta Argaiak hamahirugarren egin zuten. Joxemartin Bustintza *Tubik* goratu zuen gehien 45 kiloko lasto fardoa eta berak eraman zuen txapela.

Trontzan Unai Iraola ikaztegi-tarra eta Jokin Garmendia baliarraindara aritu ziren lehian. Guztira sei finalista izan ziren eta azken postua eskuratu zuten eskualdekoek. Iñaki eta Josetxo Barberena anaiek lortu zuten txapela, hirugarrenez.

## Aizkora, bikain

Igandean II. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu zen eta eskualdeko hiru aizkolariak sailkatu ziren finalerako. Unai Otaño ibartarrak egin zuen denborarik onena. Arkaitz Olano eta Jon Rekondo leitzarrek laugarren eta bosgarren egin zuten hurrenez hurren. Finala urriaren 9an jokatu da Asteasun, 18:00etan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Olano eta Jaka, Joxean Tolosa Txapelketan eskualdeko finalistak

Eskualdeko beste hiru pilotarik ezin izan dute finalerara iritsi: Altuna, Artola eta Bellosok

**I. Garcia** Amezketara

Olano aresoarra, kadeteen mailan, eta Jaka lizartzarra, gazteen mailan, izango dira eskualdeko ordezkariak XXII. Joxean Tolosa Txapelketan. Asteburu honetan jokatu dira finalerdiak eta eskualdeko beste hiru ordezkari lehiaketatik kanpo geratu dira: Altuna amezketarra kadete mailan, Artola alegiarrak gazteen mailan, eta Bellosok gazteluarra nagusien mailan.

Finalak datorren igandean jokatuko dira, 17:00etan hasita, Amezketako frontoian. Kadete mailan, Olanok Irribarria aramarra izango du aurrean. Gazteen mailan, Jakak Resuzta bergararraren aurka jokatu du. Nagusien txapelaren bila Ezkurdia eta Arzelus joango dira.



Olano aresoarra. HITZA



Jaka lizartzarra. HITZA

## Edorta De Antak seigarren egin du Munduko Txapelketan

**I. Garcia** Tolosa

Edorta De Anta tolosarrak seigarren postua lortu du Munduko Txapelketan, arraun egokituan. Orioko klubean aritzen da De Anta, eta Espainiako Txapelketa irabazi ostean, Esloveniako Bled herrian parte hartu berri du.

Tolosarrak 5:18.57ko denbora

egin zuen. Bere aurretik Britainia Handia, Errusia, Australia, AEB eta Koreako ordezkariak iritsi ziren helmugara. Lortutako seigarren postuak zuzenean datorren urtean Londresen jokatu diren Olinpiar Jokoetako sailkapena eman dio. Horixe izango da hurrengo erronka nagusia arraunlari tolosarrentzako.



Sustatzaileek prentsaurrekoa egin zuten Euskal Herria Eguna aurkezteko. A. IMAZ

## Badator Euskal Herria Eguna

Ibarra, Lizarra eta Algortako herritarrek sustatzen dute hilaren 17an egingo den ospakizuna

**I. Garcia** Ibarra

Hirugarren urtez, Euskal Herria Eguna ospatuko dute Ibarra, hilaren 17an. Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatuta du eta Lizarra, Algorta eta Ibarra herritarrek sustatu dute. Hain justu, antolatzaileek herritarren protagonismoa nabarmendu dute: «Ibarra eta Lizarrako herritarrek bere egin dute senidetzea. Herritarrek dira protagonista, eta beraiek lortu dute bi herrien arteko harreman berezia».

Euskal Herria Egunaren hel-

### ↓ Egitaraua

Umeentzako txokoa egongo da egun guztian.

■ **09:45.** Harrera Ibarra sarre-

ran. Ondoren, kalejira.

■ **11:00.** Harnaiketako Araneko iturrian.

■ **12:00.** Herrien arteko ginkana.

■ **13:00.** Ekitaldia.

■ **14:00.** Bazkaria plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Emeterio Arrese frontoian.

■ **16:00.** Lip-duba. Ondoren, ka-

lejira poteoa Elektrotxararangekin.

■ **20:00.** Afari merienda Subegi elkartearen Algortako musikariek alaiturik.

■ **21:00.** Lip-dubaren estreinaldia plazan. Eguraldi txarra eginez gero, gaztetxean.

■ **22:00.** Kontzertuak, plazan: Dolce Tangana eta Bide Bakarra. Eguraldi txarra eginez gero, gaztetxean.

burua «harremana sortu eta Euskal Herria errealitate bat dela aldarrikatzea da». Sustatzaileek argi dute: «Euskal herritarrek gara, zazpi probintzi osaturiko nazioa». Horren erakusgarri Bizkaiko Algorta herria gonbidatu izan da aurtengo Euskal Herria

Egunera. Hiru herrietako herritarrek gonbidatzen dituzte ospakizuneari parte hartzeri.

Bazkarirako txartelak Atari eta Danon Txokoa tabernetan erosi daitezke. Helduek hamabi euro eta haurrek sei euro ordaindu behar dituzte.

### → Laburrak

**Gaur amaitzen da zabor errezihoak kobratzeko epea**

**IKAZTEGIETA** › Aurtengo lehenengo sei hilabeteari dagozkion zabor errezihoak ordaintzeko epea gaur amaitzen da. Helbideratuta dauden errezihoak ere gaur kobratuko dira. Ordaintzen ez diren errezihoak eta bankuak bueltatzen dituenak bide exekutibo kobratuko dira.

**Atletismo eskolaren entrenamenduak hasi dira**

**TOLOSA** › Tolosa C.F.ko atletismo eskolak ekin dio denboraldiari. Infantilak astelehen, asteazken eta ostiraletan elkartuko dira, 17:30etik 19:00etara. Alebinena, astelehen eta asteazkenetan, 17:30etik 18:30era. Benjaminak eta pre-benjaminak hilaren 16an hasiko dira.

**Aralar Institutuan gaur hasiko dute ikasturtea**

**ALEGIA** › Aralar Institutuak gaur hasiko du 2011-2012 ikasturtea. Lehenengo egun horretan ordu-egia 10:00etatik 12:00etara izango da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	23°
HOTZENA	17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k**  
**Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,  
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## 415 mendizalek ezagutu dituzte Areso inguruak

Ibilaldiaren amaieran 700 euro zozketatu zituzten saritan; bazkaltzeko «paella goxoa» jan zuten

**Asier Imaz** Areso

IV. Aresoko Mendi Martxa igandean izan zen, eta bertan 415 partaide atera ziren. Eguraldia aurka izan ez bazuten ere, ez zen iaizko giorrik sumatu, eta parte hartze-

ak behera egin zuen; izan ere, iaiz 500 lagunek ezagutu zituzten Areso inguruak. Antolatzaileen esanetan, gipuzkoar ugari izan zen mendi martxan. Ibilbidean, besteak beste, Ulizar, Pagozelai, Urkiza eta Lau Mugarrietatik igaro ziren. Amaieran, 700 euro zozketatu zituzten, beti ere oparitan. Kaiku produktuak ere banatu zituzten, eta bukatzeko, «paella goxoa» bazkaldu zuten. Mendi martxa Aresoko Udalak antolatzen du, Kirol Mankomunitatearen eta Plazaolaren laguntzaz.



Aresoko arkupean mendizaleak. RUBEN GOÑI/KIROL TEKNIKARIA

### Agurrak



#### Urte askoan Joxe Mari!

**Joxe Mari Olarra Agiriano (Billabona).** Abuztuaren 27an bete zenituen urteak. Besarkada iraultzaileak Billabonatik. Maite zaituztegu!



#### Urte askoan!

Igandean aitonen urtebetetze eguna izan zen, atzo Ikerrena, eta datorren igandean Unaiena izango da. Zorionak eta muxu handi bana etxekoan partetik!



**Dolores Artola Artola (Lizartza).** Gaur 85 urte. Zorionak bihotz-bihotzez seme-alaba, suhi-errain eta biloben partetik; eta baita gure esker ona egunero hainbeste ematen diguzunagatik.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola 10. 943 67 24 38.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## berria bekak 2011

#### NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

#### Kazetaritza arloa: zortzi beka

##### Ezaugarriak:

- Zortzi hilabete eta erdi ko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 5.908 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordekaritzetan

#### Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

##### Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian